

# COVID-19 NEWSLETTER

Kolonbia 2020/06/03



## INPAKTU EKONOMIKOA

### Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an <b>% -5 eta % -7 bitartean</b>	Inflazioa gaur egun (martxoan) <b>% 0,16</b> 2020rako aurreikuspena: % 3,51
PMI Indizea apirilean <b>27,6</b>	Langabezia apirilean <b>% 19,8</b> 2019ko hilabete berean % 10,3koa izan zen

EUR/COP kanbio-tasa: 4.072,25. Azken urtean EUR/COP kanbio-tasa % 13,87 murriztu zen petrolioaren prezio baxuengatik eta Covid-19agatik

### Inpaktua sektore industrialetan

Produktzio aparatuaren % 70ak erabat eten du bere jarduera

#### Energia

Salbuespen gisa petrolioaren sektoreak lanean dihardu. Sektore horri laguntza emango zaio, sortzen duen dirua (erregaliak) funtsezkoa delako gobernuak emango dituen laguntza ekonomikoak finantzatzeko. Petrolioaren prezioa urtebetean modu jarraituan dolar bat jaisten den bakoitzeko, erregaliengatik diru-sarrera fiskalak 400.000 milioi peso murrizten dira urtean



**Aeroespaziala:** Aviancak (Kolonbiako bidaiarien eta merkatu-gaien garraioaren % 50) bankarota deklaratu du Estatu Batuetan, BVCn % 77ko beherakada jasan ondoren. Latam enpresa AEBetako kiebraren legeari atxiki zaio, eta horrek eragina izan du Kolonbiako filialean

**Eraikuntza eta manufaktura:** Eraikuntza eta manufaktura sektoreak (BPGaren % 8) lanean hasiko dira berriro apirilaren 27an

### Inpaktua zerbitzuetan



#### Ostalaritza sektorea eta entretenimendua

Itxita daude martxoaren 20tik. Ez dira berriz irekiko maiatzaren 31ra arteko berrogeialdi berria bukatu arte. Jatetxeen salmentak % 82 murriztu dira.

Handizkako eta txikizkako merkataritza (merkataritza-guneak eta higiezinaren jarduerak, ile-

apainketako zerbitzuak, ibilgailuentzako aparkaleku publikoak, museoak eta liburutegiak barne) berriro hasiko da lanean ekainaren 1etik aurrera, Bogotan izan ezik, non ekainaren 15ean irekiko baitute



### **Turismo sektorea**

Kalkulatzen da 20,1 bilioi peso inguruko galerak izango direla (Kolonbiako 2020ko BPGaren % 1,5). Eztabaidatzen ari dira berrogeialdiaren ondoren

jaiegunak kenduko ote dituzten. Turismoaren Munduko Erakundearen laguntzarekin eta sektorea berpizteko xedez, bio-segurtasun turistikoko zigilua abiarazi da

### **Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)**

- ❖ Interes-tasak: % 3,75era murriztu dira (% 4,25etik)
- ❖ Merkatuak: Kolonbiako Balore Burtsak % -26,32 (urte hasieratik hona)
- ❖ Fitch-ek Kolonbiaren kalifikazioa jaitzi du: BBB aurreikuspen negatiboekin



## EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

### Neurri fiskalak



- ❖ Atzeratu egin dira zerga hauek kobratzeko epeak: bankuen gaintasa, sozietateen gaineko zerga, eta normalizazio eta ondare zergak
- ❖ Pertsona juridikoek epe luzeagoa dute zerga aitortpena aurkezteko eta errentaren gaineko zerga ordaintzeko
- ❖ BEZa itzuliko zaie familia kalteberei (bilioi erdi bat pesoko kostu fiskala izango du neurri horrek)
- ❖ Taberna, jatetxe, gozotegi eta kafetegiei ez zaie BEZ-ik (% 8) kobratuko abendura arte
- ❖ BEZ gabeko 3 egunak aurreratu egin dira eta artikulua hauei aplikatuko zaie: arropa, osagarri, tresna, etxetresna elektriko, kirol ekipamendu, bizikleta, patin (elektrikoak barne), ordenagailu, telefono adimendun eta nekazaritza eta abeltzaintzako intsumoak (2,8 milioi pesorainoko ondasunak)
- ❖ Lokal komertzialei ez zaie kobratuko errentamenduaren gaineko % 19ko BEZa ezin izan badute ireki COVID-19agatik

### Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)



- ❖ Kreditu-ildo berri eta abantailatsuagoak sortuko dira eta kreditu txartel nahiz hipotekak ordaintzeko epeak luzatuko dira
- ❖ 600.000 milioi COP bankuko mailegutan, edozein enpresa motarentzat eta gobernuak abalaturatuta

### Dirulaguntzak eta mailegu publikoak



- ❖ Bermeen Funts Nazionalak 70 bilioiko maileguak emango ditu, horietatik 20 mikroenpresa eta ETEentzat
- ❖ Nekazaritza Ministerioko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Bankuak kreditu abantailatsuak eskainiko dizkie nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizleei
- ❖ Transferentzia zuzeneko subsidioak ordainduko zaizkie egoera zaurgarrian dauden 10 milioi kolonbiarri
- ❖ Munduko Bankuak 700 milioi US\$ mailegatuko dizkie Kolonbiari Covid-19ari aurre egiteko. Ordainketak aurre eta datorren urtean egingo dira
- ❖ Organismo multilateral hori laguntza gehiago aztertzen ari da: kredituak etxebizitza erostera bultzatzeko, azpiegiturak garatzeko eta Programa Sozialen Onuradun Potentzialen Identifikazio Sistema modernizatzeko
- ❖ Gobernu Nazionalak gutxieneko soldataren % 40 ordainduko die aurreko urtearekin alderatuta fakturazioaren gutxienez % 20ko beherakada jasan duten enpresetako langileei
- ❖ Datozen bi urteetan, gobernuak 100.000 subsidio esleituko ditu gutxieneko lau soldata baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familientzat, eta beste 100.000 edozein mailatako diru-sarrerak dituztenentzat, interes sozialeko etxebizitza bat erosi nahi badute





## Lan-indarra

- ❖ **Langileak:** Enplegua babeste aldera, Lan Ministerioak berrikusiko ditu enpresek langileak masiboki kaleratzeko aurkezten dituzten eskaerak. Hileko gutxienez bi soldata bermatuko dira hiru hilabetez, berrogeialdian lana galtzen dutenentzat. Enplegatzailleek aukera izango dute langileei opor ordainduak emateko aurretik abisatu gabe
- ❖ 7,5 milioi pertsona inguruk lanean jarraitu behar izan zuten oinarrizko sektoreetan, besteak beste, osasun sektorean, elikadura eta nekazaritza sektorean, garraioan, logistikan, telekomunikazioetan eta zerbitzu publikoetan. 1.6 milioi langile euren lanpostuetara itzuli dira maiatzaren 31tik aurrera, eraikuntza eta manufaktura sektoreak berraktibatzen direnean







## MUGAK


### Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

-  Itxialdiko neurriek ez dute eraginik izan **merkatu-gaien garraioan**
-  Bidaiarientzako **garraio publikoko zerbitzua** eskaintzen da oraindik, baina berezko gaitasunaren erdiko eskaintzarekin

### Biztanleriaren mugikortasuna

-  Derrigorrezko itxialdia herrialde osoan martxoaren 23tik, laugarren aldiz luzatu da **uztailaren 1era arte** 
  - ❖ Bakarrik zirkulatu dezakete oinarrizko edo premia biziko funtzioekin lotutako zerbitzuak eta lanak eman/egin edo jasotzeko ezinbestekoak diren pertsonak eta ibilgailuek
  - ❖ Bogotan posible da kirola egitera ateratzea apirilaren 27tik aurrera, goizeko 6:00etatik 10:00etara bitartean, bakarka eta etxe inguruan (1 km)
-  Eskolak eta unibertsitateak itxita
-  Herrialde barruko aireko bidaiak eta udalerrri arteko joan-etorriak etenda daude uztailaren 1era arte. Ez dira berriz martxan jarriko osasun arloko larrialdia bukatu arte. Ez da egongo nazioarteko hegaldirik irailaren 1era arte

### Mugetako egoera

-  Aire, Itsaso eta lurreko mugak itxita daude **uztailaren 1era arte**